

spri




Urteko Txostena 2006





Urteko Txostena 2006



SPRIko Presidentearen Gutuna



Atsegina da niretzat SPRI Taldearen jarduerari buruzko Urteko Txosten berri honen sarrera irakurleari zuzentzea, zalantzarik gabe, oso berezia baita. 2006. urtean Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Sozietatearen 25. urteurrena ospatu dugu eta, gainera, aparteko urtea izan dugu bai kanpoko testuinguru ekonomikoagatik eta bai hogeita bost urte beterik agentzia gazte honek daukan bizitasunagatik ere.

Has nadin, bada, hasieratik, hau da, bilakaera ekonomikotik. Urte bat eta erdi baino gehiago da hamarkada honen hasieratik zetorren beheraldi ekonomikoa gainditurik zegoela ohartarazi genuela, eta iazko ekitaldiak erabat baieztatu du hala dela. %4,2 hazi gara, industriak eta kanpoko sektoreak protagonismo nabarmena izan dute, enplegu asko sortu dira, eta produktibitatea %2 inguru igo da ekonomian oro har eta %5 baino gehiago industriari, beraz, gure itxaropenik baikorrenak bete direla esan daiteke.

Ekonomian maiz gertatzen den bezala, ordea, une gozoak laster igarotzen dira: susperraldiaren sendotasuna baieztatu bezain laster, haren iraupenaz eta etorkizun hurbilaz kezkatzen hasten gara. Hazkunde horren motorra izan den eta berriro ere produktibitatearen hobekuntza ekarri duen industriaren hedapena moderatu egin da eta une honetan %3 inguru hazten ari da Euskadin, bitartean, Alemania moteldu egin da eta hango erreferentziak %4tik gorakoak dira, izan ere, sintonia handia dugu hango zikloekin. Frantzia eta Europako Batasunean oro har, berriz, %2 eta %2,5 bitartean dabil. Aurreikuspenen arabera, 2007. urterako ekonomia %3,8 haziko da oro har eta manufaktura sektorea ere tasa berean haziko omen da, horiek hor jarraitzen dute, baina aipatu ditudan datu hauen argitan, esan daiteke ez dela ikasgai erraza izango, inguruneke zantzuek adierazten dutenaren arabera.

Inguruneak lagunduta hazkunde handia izanik, produktibitatea aurrera doa ia berez; baina horrela ez denean, aurrean dugun erronka handitu egiten da eta ahalegin handiagoak egin behar izaten ditugu hazkunde hori bultzatzen duten faktoreak indartzeko. Eredua aldatzeaz ari naiz, jakina, baina ez makro ikuspegian (industria eta kanpoko sektorea), enpresa estrategian baizik (berrikuntza eta nazioarteratzea), azken batean bera baita zifra handien atzean dagoena.

SPRIren jardueraren balantzea islatzen duen txosten honek agerian jartzen du aldaketa hori badatorrela, baina ez guk nahi genukeen abiadura bizian. Inbertsioak laguntzeko ohiko programen erregistroak apalagoak diren bitartean, kanpoko proiektzioa guztiz azkar hedatzen da, halako moldez non ez baita aste bakar bat ere igarotzen kanpoko ezarpen garrantzitsuren bat berri izan gabe. I+G programetan ere enpresen inplikazioa hobetzen ari da urtetik urtera, hartara, Intek berri programan kopuru hori 1200 ingurukoa da jadanik.


Baina bistan da oraindik ere bide luzea dugula egiteko eta, batez ere, berrikuntzaren ikuspegi berria errealitate sendoagoa bihurtu behar dela aldaketen eraginak igartzeko, izan ere, ikuspegi hori Lehiakortasun Planaren eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren eskutik dator.

Azken hau laster plazaratuko da, eta urtebete baino ez da igaro Jaurlari-tzak Lehiakortasun Plana onartu zuenetik, hortaz, bien eraginak ez dira iritsi beren onenera. Hala ere, aldi horretan, SPRIk aukera zabala eskaini die enpresei zerbitzuetan (kanpo sarea, teknologia transferentzia...), hala nola, ekintzailatza eta informazio gizartearen inguruko ekimen eta progra-metan eta, horrez gain, Innovanet sare berriaren eta Innova Ekimenaren sorreran parte hartu du Sailarekin elkarlanean.

Horrela, enpresa sarearen mobilizazio orokorraren oinarriak jartzen ari gara berrikuntza irekirantz abiatzeko: irekia izango baita teknologiatik ha-ratagoko kontzepzio zabal bati eta ideia eta gaitasun osagarriak dituztene-kiko lankidetzari. Eginkizun hau batera eraman behar dute administrazio guztiek eta Innovanet sarean inplikaturik dauden eragile guztiek, izan ere, iraupen luzeko lana da, kalitate osoa hedatzea izan den moduan.

Aldaketa hauek guztiek baldintza garrantzitsuak ezartzen dizkiote politika askoren erantzukizuna duen agentzia publiko bati. 25. urteurren honetan, uste dut SPRI Taldea argi eta garbi erakusten ari dela gogoz gaztea dela eta baduela egokitze gaitasuna ingurunearekin batera eboluzionatzeko eta eredu aldaketa horretako protagonista izateko. Hitz batez, berrikuntzan berritzailea izateko.

Horiek guztiak direla eta, eskerrak eman nahi dizkiet antolakundeko kide guztiei eta animatu nahi ditut aurrera egin dezaten enpresak era berritzailean laguntzeko zereginen. Eta neure azken mezua enpresei berei zuzendu nahi nieke erakutsi duten konfiantza eskertuz eta, denei, handi, ertain zein txikiei, guregana are gehiago hurbiltzeko gonbidapena egin nahi nieke, beren premien berri sentiarazi eta hobetzen lagun diezaguten, horre-la, denok batera, errealitate bihurtu dezagun bigarren eraldaketa ekono-mikoari buruzko ikuspegia, epe ertain zein luzera begira, gizarte oparoago eta kohesionatuago baten oinarria izango baita.



Ana Aguirre
SPRIko Presidentea

A low-angle, upward-looking photograph of a man with a beard and dark hair, wearing a white dress shirt and a dark tie. He is leaning his arms on a light-colored metal balcony railing, looking up towards a modern, multi-story building with a complex, grid-like facade of concrete and glass. The sky is blue with some white clouds. The overall mood is contemplative and aspirational.

Aurkibidea

SPRIko Presidentearen Gutuna	4
Sarrera.....	8
Ekin eta Hazi.....	10
Berritzea.....	14
Teknologi Berrikuntza.....	16
Berrikuntza eta Enpresa Eraldaketa	18
Informazio Gizartea.....	20
Nazioarteratzea	22
SPRI Taldeko Sozietateak	28
Euskadiko Arrisku-Kapitalaren Kudeaketa, S.G.E.C.R., S.A.	30
Teknologi Elkartegien Sarea	33
SPRILUR, S.A.	35
Enpresa eta Berrikuntza Zentroak (EBZ).....	39
SPRI, Sozietatea.....	42
SPRIko Zuzendari Nagusiaren Gutuna.....	46
2006ko Irudiak.....	48

Lehiakortasuna hobetzeko prozesuetan euskal enpresei bere bultzada eta babes osoa eskaintzeko konpromisoa harturik, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak sustatutako **Enpresa Lehiakortasunerako eta Gizarte Berrikuntzarako 2006-2009 Plan**ean zehaztutako **ildo estrategikoetan** oinarritzen du SPRIk bere lana.

Ilido estrategiko horiek zentzu osoa ematen diote **Enpresa Lehiakortasunerako eta Gizarte Berrikuntzarako Eredu berriari**, izan ere, gaur egun gidatzen dugun eredu horren oinarriak ondoko hauek dira: **berrikuntza, pertsonak, enpresa taldeen tamaina, kanporantz irekita egotea...**; hitz batez, funtsezko balio multzo bat, eta gaur egun balio horiek SPRIren lanaren erreferentzi esparrua dira.

Hartara, **SPRIk** enpresekin eta euskal gizartearekin **duen konpromisoa** betetzeko, baldintza eta giro egoiak sortu behar dira gure ekonomia lehiakorragoa izan dadin, gure enpresek eta ekintzaileek **ekin, berritu, hazi eta nazioartera irteteko** duten gaitasuna hobetuz.

Helburu hori erdiesteko, **SPRI eta bere Taldea** beren egitura operatibo berri eta bizkorragoaz baliatzen dira, izan ere, estrategia berrira egokitutako eraldaketa sakon baten ondotik sortua da egitura hori, euskal enpresaburuek une bakoitzean behar dituzten erantzun zehatzak eta eraginkorrak emateko, eta **lehiakortasuna hobetzeko erronkari aurre egiteko, hazkunde, ekintzailetza, berrikuntza eta nazioarteratzearen** esparruan.

Aipatutako eraldaketa orokor hori islatu nahi izan dugu Urteko Jarduera Txosten honetan eskainitako ikuspegian ere, hartara, SPRIk 2006. urtean burututako jarduera nagusiak jaso ditugu eta, oraingo honetan, beste ikuspuntu estrategiko batez jorratu ditugu, lehiakortasun eredu berriari jarraituz. Espero dugu txosten honek zure itxaropenak beteko dituela eta irakurritakoan gustura geratuko zarela.

A close-up photograph of a person's hands holding a small, vibrant green plant with several leaves. The person is wearing a white dress shirt and a blue and white striped tie. The background is softly blurred, showing more of the person's torso. The lighting is warm and focused on the hands and the plant. A semi-transparent grey banner with white text is positioned across the middle of the image.

Ekin eta Hazi

SPRIren lehentasunetariko bat da **hazkundera eta ekintzaileria** erdiesteko bete beharreko premiei erabateko estaldura eskaintzea euskal enpresetan, betiere argi izanik **helbururik behinena enpresa proiektu berritzaileak, balio erantsi handikoak, inbertsioak erakartzen dituztenak, enplegu aukera berriak sortzen dituztenak, eta ETEen lehiakortasuna hobetzen dutenak bultzatzea eta babestea dela.**

Ekin eta Hazi

Ekin

2006. urteko ekitaldian, hainbat jarduera burutu ditugu ekintzaileria arloan, ondoko hauek besteak beste:

Spireren eta Unibertsitateen Arteko Akordioa

Lankidetzak akordio marko bat sinatu dute SPRIk -Enpresa eta Berrikuntza Zentroen sarearen bitartez- eta Euskal Herriko Unibertsitateak, Deustuko Unibertsitateak, Mondragon Unibertsitateak, Tecnun-ek eta Nafarroako Unibertsitateko Donostiako Campus Teknologikoak, **sustapen eta aholkularitza programak eskaintzeko, ekintzaileria laguntzeko programak gauzatzeko, eta unibertsitateetan oinarri teknologikoko enpresak sortzen laguntzeko programak bultzatzeko.**

E.E.G. Programa - Europako Enpresa Gaztea

Ekintzaileria jarduerak bultzatzeko esparru beraren barruan, **lankidetzak akordio bat sinatu dute Eusko Jaurlaritzak** -Industria, Merkataritza eta Turismo Saila eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila- eta **Asturiasko Gobernuak** -Industria eta Enplegu Saila-, **Euskadin “Europako Enpresa Gaztea” (E.E.G.) Programa ezarri eta garatzeko**, programa hau autonomia erkidego honetako Lanbide Heziketako Ikastetxeen bitartez burutuko da datozen bi urteetan.

Proiektu honek hezkuntza eta enpresa uztartzen ditu, eta haren helburu nagusia da ekintzaileria kultura zabaltzea hainbat naziotako gazteen artean, horretarako, ikastetxean inportazio-esportazio enpresa bat sortu, antolatu eta kudeatu behar da.

Ekin

Ekintzaile Eta Barnekintzaile Programak

Bi programa hauen bidez enpresa asmo bat garatu eta lantzea bultzatu nahi da, betiere enpresa hori industria sektorekoa edo industriarekin lotutako zerbitzuen arlokoa bada, eta ideia berritzaileak edota teknologikotzat jotzen bada. Barnekintzaile programak, ordea, berezitasun bat du, hots, haren xedea zera da, ETE batean premia bat antzematen denean, bertan sortutako ideia berritzaileak laguntzea, geroago enpresa independente bat sortzeko.

Guztira, 2006. urtean, 81 proiektu onartu dira **Ekintzaile** programaren barruan, eta horietara bideratutako zenbatekoa 1.558.011 eurokoa izan da. Bestalde, programa honen babespean 66 enpresa berri sortu dira, datozen 3 urteetan 570 enplegu sortuko dituztenak.

Beste alde batetik, **Barnekintzaile** programaren barruan 19 proiektu berri onartu dira 2006. urtean. Horietarako laguntza 387.500 eurokoa izan da. Denbora horretan, 19 enpresa berri eratu dira eta aurreikusten da datozen 3 urteetan 175 enplegu berri sortuko direla, gainera, horrek 6.475.500 euroko inbertsioa eragingo du.



Hazi

Hazkunde eta sendotze prozesuan enpresei lagun egitea eta babesa ematea da SPRIren beste lan ildoetarik bat. 2006. urtean, gure sozietateak beste bi programa sortu ditu ildo honetan: **Inbertsioak egiteko Finantza Laguntzak (AFI-IFL) eta Ondorengotza.**

Ondorengotzari Buruzko Programa

SPRIk, Ondorengotzari buruzko Programaren bitartez, informazio, sentsibilizazio eta prestakuntza tresna bat eta laguntza ekonomikoa eskaini nahi dizkie enpresa txiki eta ertainei (industria, merkataritza eta turismo arloetako ETEak) enpresan edo saltokian belaunaldien arteko ondorengotza prozesua planifikatzen laguntzeko, trantsizioa arrakastaz burutzeko eta, horrela, enpresaren jarraipena eta, horrenbestez, lanpostuen iraupena bermatzeko.

2006. urtean, euskal enpresek aurkeztutako 28 laguntza eskaera izan dira aztergai programa honen barruan, eta horietarik 18 izan dira onartu eta abian jarri direnak.

Bestalde, famili enpresari buruzko sentsibilizazio jardunaldiak egin dira hiru lurralde historikotako Merkataritza Ganbarekin lankidetzan.

AFI-IFL Programa

Inbertsioak egiteko Finantza Laguntzen Programa EAEko industria, merkataritza eta turismo arloetako enpresa txiki eta ertainei laguntza emateko ekimena da, epe luzerako eragiketen kostu finantzarioa gutxitzeko helburua du eta, horretarako, SPRIrekin hitzarmena duten 26 finantza erakundeekin formalizatutako laguntza finantzarioak eskaintzen dira aktibo finkoetan inbertsioak egiteko.

Denbora honetan, 879 laguntza eskaera izan dira aztergai, eta horietarik 769 izan dira onartuak, emandako diru-laguntza 10.107.040 eurokoa izan da guztira. Onartutako proiektuak 543 izan dira industria arloan, 205 merkataritza arloan eta 21 turismo arloan.


Gauzatu Programa

2006. urtean, Gauzatu Programan –aurrerakin itzulgarriak- industria eta turismo arloetako 89 proiektu aurkeztu ziren guztira. Industriakoen eta industriarekin lotutako zerbitzuetakoen kasuan oinarri teknologikoa edota berritzailea izateko baldintza betetzen dute. Aurkeztutako proiektu guztietarik 58 izan dira onartutakoak, eta inbertsio orokorra 110.000 mila eurokoa izan da, eta datozen 3 urteetan, proiektu horien garapenaren ondorioz, 859 enplegu berri sortuko dira.

Proiektu Estrategikoen Programa

Programa honen helburua industriako, logistikako eta industriarekin lotutako zerbitzuen arloetako inbertsio proiektu estrategikoak sustatzea da. Programa honetan sartzeko, proiektuek 60 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa egin behar dute, edo 12 milioi eurotik gorako inbertsioa eginda, 110 lanpostu sortu behar dituzte gutxienez, 4 urteko epean.

2006. urtean **3 proiektu estrategiko** sustatu ziren eta, estimazioen arabera, inbertsioa 117,7 milioi eurokoa izan zen eta 259 enplegu sortu ziren 3 urteko epean.



Berritzea

SPRIK BERRIKUNTZA integrala bultzatzeko konpromisoa du, eta **euskal enpresa txiki eta ertainetan eraldatze eta aldaketa prozesua erraztea** hartu du xede, horretarako, zuzendaritza karguen prestakuntza eta berrikuntzaren kultura sutatzen ditu.

Testuinguru honetan, jarduketa integral, egoki eta beharrezkoak bultzatzen ditu, pertsonengan oinarritutako berrikuntzaren kultura hori indartzeko eta, horretarako, sustatu egiten ditu sormena, talentua, jakintza aplikatua, eraldatzeak, aldaketa teknologikoa, enpresen arteko lankidetzak eta aldaketari aurrea hartzea.

SPRIK hiru lan ildoren inguruan antolatzen du berrikuntzaren sustapena: lehenengoa eremu zientifiko teknologikoan berrikuntza bultzatzea da eta, horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak kudeatzen ditu, bertatik ateratzen diren politika eta programa zientifiko teknologikoak gauzatu eta aplikatzen ditu, eta euskal enpresa sarearen esku jartzen ditu.

Bigarren ardatzaren helburua euskal enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzea da, horretarako, hainbat ekimen bultzatzen ditu, aldaketa eragin eta berrikuntzaren kultura sustatzeko, berrikuntzaren aldeko ingurunea indartuz, zuzendaritza gaitasunak eta trebetasunak garatuz, eta antolakunde berritzaileak aitzinatuz.

Azkenik, lehenago aipatutako bi ardatzen bide beretik, enpresek eta herritarrek informazio teknologiak barneratu eta erabiltzea bultzatzen du SPRIK, enpresa sareak zein gizarteak oro har berrikuntzaren kultura bere egin dezan erraztuz.



Teknologi berrikuntza sustatzea

2006. urtean, SPRIko Teknologia eta Berrikuntza Unitate Estrategikoak **2010eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana** idatzi du, ahalegin handi bat eginez enpresa, unibertsitate, gizarte erakunde eta administrazio publikoetako 200dik gora ordezkariaren gogoetak eta iritziak biltzeko.

Beste alde batetik, SPRIk burututako lankidetzaren esparruan **Europako Neutroien Espalazio Iturria Instalatzeko Proiektuaren Idazkaritza Teknikoa** eratu du bere baitan, izan ere, egoitza Euskadin izango du, proiektua aurreikusita zegoen bezala garatzen bada.

Etorkizuneko espalazio iturria Euskadirentzat lortzeko ahaleginean, **“ESS-I - European Spallation Source Initiative”** ekimeneko nazioarteko aditu taldearen bileretariko bat eragin eta bultzatu du SPRIk, eta bertan aurkeztu zen ofizialki gure kandidatura.

BIOBASQUE 2010 estrategia ezartzeko prozesuan, **SPRIko BIOBASQUE** Agentziak -Euskadin biozientzietan oinarritutako enpresa sektore bat garatzeko helburua duena- bioEskualde onarpena lortu du Europako Batasunean. Horrenbestez, **BIOBASQUE Agentziaren** bitartez, Euskadik Kontseiluan parte hartuko du eta eskubide osoko kide izango da.

SPRIin koordinatuko da halaber **Eurobulegoaren** jardura (Europako Batasunaren VII. Programa Markoan euskal entitateen partaidetza bultzatzeko tresna), eta batez ere Basque Contact Points (B. C. P. s) ekimenaren sustapena.

Beste alde batetik, **Berrikuntzarako Lotura Zentroa (IRC)**, nazioz gaundiko teknologiarren transferentzia bultzatzea eta I+G proiektuen emaitzak ustiatzea du xede, eta Europako ERANET proiektu batzuetan parte hartu du. Europako herrialdeen / eskualdeen arteko enpresetako I+G+b bultzatzeko programak

sustatu eta abian jartzen ditu programa honek, eta laguntzak koordinatzen ditu horien artean, adibidez: ETRANET, informazio eta komunikazio teknologien arloan, eta EUROTRANSBIO, biozientzien sektorean.

I+G kudeaketan SPRIk 2006an burututako jardueren artean honako hauek aipa ditzakegu:

- Guztira, 114 milioi euro kudeatu dira I+G+b-rako laguntzetan. Esparru honetan 315 proposamen aztertu dira **SAIOTEK Programaren** barruan -ikerketa orokorreko I+G proiektuak-.

Saiotek-en helburua Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragile zientifiko teknologikoen jardura planak finantzatzea da.

- **ETORTEK Programaren** barruan ebaluatu diren ikerketa estrategikoko 20 proiektuak konplexutasun handikoak izan dira, horietarik 14 onartu dira, eta diru-laguntza 32 milioi eurotik gorakoa izan da.

Proiektu horiek lankidetzan burutzen dira, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko zenbait kideren artean, eta ekintza multzo koherente bat biltzen dute, izan ere, I+G jardurekin batera beste hainbat burutu behar dira, adibidez, goi mailako prestakuntza jarduerak, hedapen jarduerak, teknologiarren transferentzia, eta nazioarteko lankidetzak, besteak beste.

Beste alde batetik, **GAITEK, INNOTEK eta NET's Programa** berrien araudiaren babespean enpresek proposatutako 1.174 I+G+b proiektu aztertu dira.

Intek berri programaren barruan proiektuak aurkeztu dituzten enpresak 973 izan dira guztira, eta horietarik 735k jaso dituzte laguntzak.

Beste Laguntza Jarduera Batzuk

- Unibertsitatearen eta enpresaren arteko 16 proiektuen ebaluazio prozesuetan parte hartu dugu, proiektu horietan Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak eta Euskal Herriko Unibertsitateak kolaboratu dute.
- Azpiegitura zientifikoen inguruko 25 proiektuen ebaluazio prozesuetan parte hartu dugu, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin lankidetzan.

Berrikuntza Eta Teknologiaren Transferentzia

Ondoren aurkeztuko ditugu arlo honetako jarduketarik garrantzitsuenak bi atal handitan bereizirik:

1. Teknologia berriei buruzko informazio sistemak eta Eusko Jaurlaritzako, Estatuko eta Europako programa teknologikoak.

- I+G-ari, berrikuntzari eta Europako programen zabalkundeari buruzko 7 mintegi egin dira, 600 parte-hartzaile baino gehiago izan dituztelarik.
- “VII. Programa Markoa” aurkezteko jardunaldia, parte-hartzaileak 700 baino gehiago izan direlarik.
- Workshop: “Alertak eta teknologiaren joerak biozientzien sektorean”, (Stanford Research Institute).
- Teknologia berriei buruzko 680 txosten banatu dira (Stanford Research Institute).
- “EUROINFO” buletinaren 11 zenbaki argitaratu ditugu eta enpresetako 700 kontakturi helarazi dizkiegu.
- 19 diagnostiko teknologiko egin ditugu enpresetan.

2. Teknologiaren transferentziari eta Europako programetan parte hartzeari buruzko aholkuak. Sei lantaldean (elikadura, automobilgintza, bioteknologia, ingurumena, energia eta ingurumena) parte hartu da nazioarteko lankidetzaz jarduerak abiarazteko. Bestalde, 425 eskaintza eta eskari teknologiko gestionatu dira.





Berritzea

Berrikuntza eta Enpresa Eraldaketa Sustatzea

2006. urtean, beste jarduera batzuen artean, **“Enpresa Lehiakortasunerako eta Gizarte Berrikuntzarako 2006-2009 Planean”** jasotako berrikuntzaren ardatza definitzeko ahaleginak egin ditu SPRIk, Eusko Jaurlaritzako Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen Zuzendaritzarekin lankidetzan. Plan hau funtsezko euskarria da EAEko gobernuaren eta gizartearen ekintzetarako, “Euskadiko bigarren eraldaketa sozioekonomiko handia” deiturikoari arrakastaz aurre egin ahal izateko.

Definizio horren ondorioz lan prozesu bati ekin diogu eta eragile nagusien lankidetzan izan dugu (Aldundiak, teknologi zentroak, garapen agentziak...) berrikuntza arloko ildo estrategiko nagusien jarduera-esparru orokorrak garatzeko.

Lantaldeek ondoko proiektu hauek jorratu zituzten: **Innova Programa, Innovanet Sarea, Zerbitzu Aurreratuak, Kultura Berritzailearen Sustapena eta Behatoki Estrategikoak (NABE).**





- **INNOVA ekimenak** hainbat jarduera (sentsibilizazio, prestakuntza, inplementazio eta jarraipen ekintzak) eta laguntza programa diseinatu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko enpresak antolakunde berritzaile bihurtzeko. Ekimen hau **INNOVANET Sarearen** bidez hedatuko da. Berrikuntza sustatzen diharduten erakundeek eta antolakundeek osatzen duten sare hori Euskal Autonomia Erkidego osora hedatuko da, hiru lurralde historikoen berezitasunak kontuan hartuta.
- Kolaboratu dugu halaber etorkizuneko **Berrikuntza Euskal Agentziaren** kontzeptua zehazten, funtsezkoa izango baita Euskal Berrikuntza Sistemaren kohesioa eta elkarreragina hobetzeko.
- **Euskadi ikasten** ekimenaren esparruan lantalde bat bultzatu eta koordinatu da enpresetako berriarazko prestakuntza beharrak aztertzeko.
- **Kudeatzaile Bikainak** ekimenean “**Zuzendaritza Karguen Bikaintasun Programa**”ren diseinua landu da; programa horren xedea zuzendaritza karguen trebetasunak eta ahalmenak garatzea eta haien gaitasunen mapa zehaztea da.
- **Lehiakortasunerako Euskal Institutuaren** sorreran parte hartu dugu Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan eta Harvardeko Lehiakortasun Institutuarekin elkarlanean.
- **Enpresa Lehiakortasunari eta Herrialde Garapenari Buruzko Ikastaroaren** edizio berri bat antolatu da Harvard eta Deustuko Unibertsitateekin lankidetzan, aurrerantzean Lehiakortasunerako Euskal Institutuak kudeatuko du.
- **Berrikuntza Estrategikorako Nazioarteko Behatokiaren** (NABE) sorrera nabarmendu behar da, behatoki honek UNITAR-ekin (NBE) kolaboratzen du tokiko agintarientzat prestakuntza ekintzak antolatzeko Informazio eta Komunikazio Teknologia berrien inguruan, Tokiko Agenda Digitala garatzeko eta IT4ALL Mundu Sarea kudeatzeko.
- Bestalde, **SPRI United Nations Global Alliance for ICT and Development**-eko kidea da, eta ekimen hau **Nazio Batuetako Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak** bultzatutakoa da.
- Halaber, **Informazio Gizarterako Eskualdeen Europako Sareko (ERISA)** kidea da SPRI, eta ekimen honen urteko batzarra, **IANNIS + 2007**, Bilbon egingo da 2007ko ekainean.



Berritzea

Informazio Gizartea Sustatzea

Enpresek, herritarrek eta administrazioak Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia (IKT) erabiltzea sustatzen du SPRIk, kontuan izanik administrazioa zerbitzu eta edukien erabiltzailea eta hornitzailea dela aldi berean.

Hona hemen urte honetako daturik aipagarrienak:

IT Txartela

Programa honetan emandako egiaztagiria hainbat erakunde publiko eta pribatuk homologatu eta onartu dute, esate baterako, HAEEK, Bizkaiko Foru Aldundiak, zenbait udalek, Confe-baskek, eta beste batzuek.

Urte honetan, 74.400 azterketa egin dira, eta horietarik 38.773k lortu dute egiaztagiria.

Hobeki Digitala

Euskal enpresetan **Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia (IKT)** hedatzea da programa honen xedea.

2006an, Hobeki Digitala Programak 1.546 proiektu jaso ditu, eta horietarik 977 onartu eta kudeatu ditu, IKTen arloko kudeaketa tresnak abian jartzen laguntzeko.

Enpresa Digitala Zentroak

Enpresa Digitala ekimenak laguntza eskaintzen die Euskal Autonomia Erkidegoko profesionalei eta enpresaburuei IKTei buruz dakitena eta negozioetan egiten duten aplikazioa hobetzeko eta haien lehiakortasuna handitzeko, eta horretarako Enpresa Digitala Zentroak erabiltzen ditu, horiek baitira beharrezko euskarria Enpresa Digitala Ekimenak berezkoak dituen zabalkunde, prestakuntza eta laguntza jardueretan: ikasgelak, liburutegia, proiektu aretoa...

Jardueren laburpena

Enpresa Digitala	2006
Zabalkunde jardunaldiak, ikastaroak eta mintegiak	211
Bertaratutakoak	6.677
Proiektuen tutoretzak	7



KZ Wifi

Urte honetan Wi-Fi konexioen hedapena sendotu dugu Euskadin 732 punturekin; amaitu da hari gabeko konexioen hedapena Euskal Herriko Unibertsitatean, eta 106 gune publiko sortu dira, Unibertsitateko 53 eraikinetan banaturik.

KZ Mikroenpresak

29.000 autonomo edo mikroenpresak parte hartu dute programa honetan, Euskadin errol-datutakoak guztira 153.315 direlarik.

2006an autonomoek eta mikroenpresek 2.829 eskabide aurkeztu dituzte laguntzarako, ordenagailuak erosteko (interneteko konexioa barne) eta hardwarea edota birus-contrako software lizentziak erosteko.

KZ Lankidetzaz

Enpresa elkarrekin, elkargo ofizialetan, eta orokorrean kolektibo garrantzitsuak biltzen dituzten entitateetan IKT proiektuak garatzea eta ezartzea bultzatzen du.

2006. urtean jasotako eskabideak guztira 79 proiektu izan ziren.

KZ Urruneko Backup

Programa honen helburua da enpresa txikien eta profesionalen ordenagailuetan gordetako datuen urruneko babes-kopiak internetez egiteko laguntzak ematea.

2006. urtean 79 eskabide aurkeztu dira, horrenbestez, 2005eko irailean hasi zenetik hona 132 eskabide egin dira guztira.

KZ Formación

KZ Formación programak KZguneak deritzen internetera sartzeko gune publikoen sarea erabiltzen du eta hauxe du helburutzat: euskal mikroenpresei ekonomia digitalera egokitzen laguntzea eta erreferente bihurtzea mikroETE eta autonomoei IKTak ezartzen laguntzeko zerbitzuetan.

2006an 752 ikastaro eman ziren eta 2.986 lagun joan ziren ikastaro horietara.

Nazionarteratzea



Munduko ekonomian arrakastaz lehiatzeko, **Enpresa Lehiakortasunerako eta Gizarte Berrikuntzarako 2006-2009 Planean** zehaztutako ildo estrategikoei eta erronkei eutsiz, **SPRIk** euskal enpresak nazioartera ateratzen laguntzeko misioa hartu du bere gain, eta haien dimentsio internazionala sustatu du, izan ere, haien **lehiakortasun maila definitzen duen faktore nagusia** izateaz gain, funtsezkoa da **hazkundera eta berrikuntza eta ekintzailera gaitasuna indartzeko**.

Bestalde, enpresen **hedapen bokazioa** sendotzen laguntzen du, banan-banan zein enpresa elkarte eta talde lehiakorren bidez, eta nazioarteko profil nabarmeneko **pertsonen prestakuntza** bultzatzeko ahalegina egiten du.

2006an, SPRIk hainbat ekimen burutu ditu aipatu ditugun helburu horiek erdiesteko, eta jarraian eskainiko dugu ekimen horien laburpen bat.

Zabalkunde eta Sentsibilizazio Jarduerak

- Bioteknologien arloko enpresen (BIOBASQUE) nazioarteratzea bultzatzeko programak aurkezteko jardunaldi bat antolatu zen Internazionalizazio Zuzendaritzarekin batera, eta bertan hamar konpainiatako ordezkariak parte hartu zuten.
- Ikus-entzunezkoen arloko enpresen (Eiken Klusterra) nazioarteratzea bultzatzeko programak aurkezteko jardunaldi bat antolatu zen Internazionalizazio Zuzendaritzarekin batera, eta bertan hamabi enpresatako ordezkariak parte hartu zuten.
- Jardunaldi bana antolatu zen hiru lurraldeetan (Bilbon, Donostian eta Gasteizen), NAZIOARTEKOTZE ESTRATEGIAK, EKINTZARAKO IKUSPEN BAT izenburupean, eta bertan Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat enpresak parte hartu zuten eremu horretan izandako esperientzien berri emanez.
- NAZIOARTEKOTZEAREN ERRONKAK izenburuko jardunaldiak ondoko gaiei buruz: “tokiko bazkidearen figura nazioartekotzean”; “Erbesteratzea: nork bere zuzendaritza-karguak bidaltzea edo tokiko pertsona kontratatzea”; “Ezarpen komertzial eta produktiboen alde on eta txarrak”; eta “Partzuergoa nazioartekotzeko tresna”.
- Hungarian automobilgintza sektoreari buruz egindako jardunaldian AUDI eta SUZUKI konpainietako zuzendaritza-karguek parte hartu zuten.
- Brasilek Espainian dituen enbaxadoreek eta aholkulari komertzialek topaketa bat izan zuten SPRIIn herrialde hartan inbertitzen duten euskal enprekin.
- Marokon inbertsioak egiteko aukerei buruzko jardunaldian herrialde hartako Industria Ministroak parte hartu zuen.





Nazionarteratzea

Kanpo Sarea

SPRIk bere profesionalen taldea eta bere Kanpo Sarea jarri du euskal enpresen eskura 25 herrialde baino gehiagotan, merkatu horietara sar daitezen laguntzeko; horretarako, banatzaileak eta bestelako egitura komertzialak bilatzen dizkie, bestalde, herrialde horietan ezarpenak egiten laguntzen die, bertan laguntza eta aholkua eskainiz gairik garrantzitsuenetan.

Hartara, 2006. urtean euskal enpresek **208 proiektu** gauzatzeko ardura eman digute, hau da, **2005. urtean baino %24 gehiago**, izan ere, urte hartan 168 proiektu gauzatu ziren.

Bestalde, urte honetan SPRIk **528 kontu baino gehiagotan** eman die laguntza euskal enpresei, kanpoko merkatuetan beren produktuak sartzeko zein horietan ezarpenak egiteko. Hau da, **2005. urtean baino %20 gehiagotan**, izan ere, urte hartan 400 zerbitzutan parte hartu zuen.



Beste alde batetik, SPRIren Internazionalizazio Arloak **Kanpo Sarea sendotu eta gehiago hedatzeko ekimen batzuk** burutu ditu, besteak beste, **Errumanian, Vietnamen, Errusian, Frantzian eta Italian** agente kolaboratzaile berriak sartu izana nabarmendu behar dugu. Halaber, Indian SPRIren bulego iraunkor bat zabaltzeko tramiteak egiten hasi gara, izan ere, SPRIk badu agente bat herrialde horretan orain dela urte batzuk.

Gainera, Silesia Beherean euskal enpresen presentzia komertzial eta produktiboa indartzeko estrategiari esker, abian jarri ahal izan dugu **EUSKARRI**-Basque Business Platform delakoa Silesia Behereko Wroclaw hirian (Polonia), eta egitura iraunkor berri hori SPRIk gaur egun duen Kanpo Sarearen osagarria da.

Bere **Kanpo Sare Iraunkorrak** diharduen herrialdeetan, SPRIk sendo bultzatzen ditu herrialde horretan dauden **euskal enpresetako ordezkarietako topaketak**, horien artean, ondoko hauek aipatu behar genituzke: **Mexiko, Brasil, AEB, Kuba, Txile, Polonia (Silesia Beherea), Txina**. Ekimen honen helburua zera da, kanpoko euskal enpresen komunitatearen kohesioa indartzen laguntzea eta filialetako zuzendaritzakarguen artean giza zein lanbide harremanen sorrera erraztea, horrela, norberaren merkatuari buruzko esperientziak eta ezagutzak elkarrekin trukatzeko bide bat sortzen da, eta hobetu egiten da merkatu horietan burututako jarduera.



Euskadi Intergune - 2006

Urte honetan, ekimen berri bat abiarazi dugu euskal enpresei SPRIren lana eskaintzeko Kanpo Sareak diharduen herrialdeetan, eta herrialde horietako merkatuen errealitatea eta aukerak ezagutarazteko. **Lehen EUSKADI INTERGUNE** honetan **193 enpresak** parte hartu dute eta **423 elkarriketa** izan dituzte **25 herrialde baino gehiagotan** kokatutako SPRIren ordezkariekin.

Beste alde batetik, erakundeen arteko lankidetzaren esparruan SPRIk hainbat ekimen burutu ditu urte honetan, besteak beste kanpoko hamabi ordezkaritza baino gehiagoren bisitak jaso ditu, eta Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa sareak eskaintzen dituen aukerak erakutsi dizkie.

2006. urtean, SPRIk buru-belarri parte hartu du Euskadi-Kuba Batzorde Mistoan, EURBESTen lan saioetan Sardinian, Bolognan eta Bruselan, eta Eskualde Garapenerako Agentzien Europako Sarearen -EURADA- Zuzendaritza Kontseiluan.

EuskadiIntergune



A professional photograph of a woman with brown hair tied back, smiling at the camera. She is wearing a black blazer with white stitching over a white top. Her arms are crossed. The background is a bright office with large windows and a blurred figure of another person working at a desk.

SPRI Taldearen Sozietateak

SPRI Taldearen Sozietate Partaidetuak tresna ordezkaezinak dira euskal enpresek hainbat baliabide eskuratu ahal ditzaten, hala nola: azpiegiturak, finantziazioa, laguntza, kokapena eta lankidetza, izan ere, behar-beharrezkoak dituzte **EKINTZAILETZA, HAZKUNDEA, BERRIKUNTZA** eta **NAZIOARTEKOTZEA** bultzatzeko, lehiakortasun eta ongizate testuinguru berrian arrakasta bilatzeko helburu estrategikoari begira.

Jarraian, partaidetutako sozietate bakoitzak **2006. urteko ekitaldian izan dituen jarduera eta emaitza garrantzitsuenak** jasoko ditugu, hurrenkera honetan:

Euskadiko Arrisku-Kapitalaren Kudeaketa, S. G. E. C. R., S.A.

Teknologi Elkartegien Sarea.

SPRILUR, S.A.

Enpresa eta Berrikuntza Zentroak.



Euskadiko Arrisku-kapitalaren Kudeaketa, S.G.E.C.R, S.A.

SPRIk nagusiki partaidetutako sozietate honen egitekoa arrisku kapitaleko entitateak eratzea eta kudeatzea da, entitate horien xedea enpresa proiektu errentagarria eta etorkizun onekoa duten enpresetan (berriak edo hedatze bidean daudenak, kotizazio ofizialik ez dutenak eta finantza alorrekoak ez direnak) partaidetza minoritario eta aldi baterakoak hartzea izanik.

2006an Euskadiko Arrisku-Kapitalaren Kudeaketa S.G.E.C.R, S.A-k bere xedearen arabera hainbat jarduera gauzatu ditu, baina betiere testuinguru lehiakor berri batean eta **Enpresa Lehiakortasunaren eta Gizarte Berrikuntzaren 2006-2009 Planean** ezarritako oinarri estrategikoen baitan.

Jarduera horiek honako **prozesu** hauek jarraitzen dituzte:

- Ondareak erakarri eta arrisku kapitaleko entitateak eratu.
- Enpresa proiektuak aztertu eta aukeratu.
- Administratzen dituen baliabideen inbertsioa dibertsifikatu.
- Inbertsioak kontrolatu eta jarraipen bat egin eta bere kudeaketan parte-hartzen duten enpresei lagundu.
- Partaidetzak saltzeagatiko desinbertsioa.

Emaizak

Jarduerek honako emaitza hauek izan dituzte
2006ko ekitaldian:

31

Jasotako kontsultak eta egindako ikustaldi komertzialak:	134
Aztertutako proiektuak	21
Onetsitako proiektuak	16
Onetsitako inbertsioen zenbatekoa (mila euro)	11.600
Gauzatutako inbertsioak	9
Gauzatutako inbertsioen zenbatekoa guztira (mila euro)	5.766
Egindako desinbertsioak	8
Gauzatutako desinbertsioen zenbatekoa guztira (mila euro)	2.382

Hauek izan dira S.G.E.C.R., S.A.k kudeatutako
erakundeak 2006ko abenduko datuen arabera:

Erakundea	Espezializazioa, Kudeatutako Kapitalak Eta Parte-hartzaileak
Ezten.- Arrisku Kapitaleko Fondoa Kudeatutako kapitala: 29.002 mila euro	Hastapenetan dauden enpresetan inbertitzea (lehen hiru urteak). Parte-hartzaileak: SPRI %80,46, Eusko Jaurlaritza %18,71, Gipuzkoako Foru Aldundia %0,83
Suizapen. Arrisku Kapitaleko Fondoa Kudeatutako kapitala: 26.304 mila euro	Sendoturik edo garapen bidean dauden enpresetan inbertitzea. Parte-hartzaileak: SPRI %47, finantza erakundeak, %50,60, beste batzuk %2,40
Elkano XXI. Arrisku Kapitaleko Fondoa Kudeatutako kapitala: 11.937 mila euro	Teknologia handiko enpresetan inbertitzea. Parte-hartzaileak: SPRI % 21,90, Eusko Jaurlaritza %15,73, finantza erakundeak %41,79, beste batzuk %20,58
Inversión en Empresas Digitales. Arrisku Kapitaleko Fondoa. Kudeatutako kapitala: 4.419 mila euro	Informazio teknologia berriak intentsiboki eta estentsiboki erabiltzen dituzten enpresa berritzaileetan inbertitzea. Parte-hartzaileak: Eusko Jaurlaritza %100.
MCC Desarrollo SPE, S.A. Enpresak Sustatzeko Sozietatea Kudeatutako kapitala: 36.060 mila euro	MCC taldearekin lotuta dauden garapen bideko enpresetan parte hartzea. Parte-hartzaileak: SOCADE %30, MCC Inversiones %21, finantza erakundeak %46,50, beste batzuk %2,50
MCC Promoción Empresarial SPE, S.A. Enpresak Sustatzeko Sozietatea. Kudeatutako kapitala: 10.551 mila euro	MCC taldearekin lotuta dauden garapen bideko enpresetan parte hartzea. Parte-hartzaileak: SOCADE %20, MCC Inversiones %16, finantza erakundeak % 62, beste batzuk %2
MCC Innovación SPE, S.A. Enpresak Sustatzeko Sozietatea. Kudeatutako kapitala: 12.130 mila euro	MCC taldearekin lotuta dauden eta puntako teknologia edo teknologia berritzailea erabiltzen duten enpresetan parte hartzea. Parte-hartzaileak: SOCADE %49,44, Euskadiko Kutxa %49,44, MCC Inversiones %1,12
Socade, S.A. Garapen Kapitaleko Sozietatea. Kudeatutako kapitala: 30.050 mila euro	Eusko Jaurlaritzarentzat estrategikoak diren kapital handiko proiektuetan parte hartzea. Parte-hartzaileak: Eusko Jaurlaritza %40, Foru Aldundiak %60

Emaitzak

Hona hemen Euskal Herriko Arrisku-Kapitalaren
Kudeaketa, S.G.E.C.R., S.A.-ren **akziodunen**
zerrenda 2006ko abenduan:

Spri, S.A.	70%
Bilbao Bizkaia Kutxa	10%
Gipuzkoa eta Donostiako Kutxa	7%
Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxa	3%
MCC Inversiones SPE, S.COOP.	7%
Viana SPE, S.L.	3%

2006ko abenduaren 31n honako hauek ziren
kopururik esanguratsuenak:

Erakundea	Partaidetutako Enpresak	Partaidetzen Zorhoa (*)
Ezten. FCR	32	26.882
Suztapen. FCR	9	19.033
Elkano XXI. FCR	4	2.026
Inversión en Empresas Digitales. FCR	9	2.602
MCC Desarrollo SPE, S.A.	7	26.353
MCC Promoción Empresarial SPE, S.A.	2	11.618
MCC Innovación SPE, S.A.	5	3.267
Socade, S.A.	10	64.556
GUZTIRA	78	156.337

* Mila euro.

Teknologi Elkartegien Sarea

2006. urteko ekitaldia itxitakoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Teknologia Elkartegien Sareak -Araba, Gipuzkoa, Bizkaia- 328 enpresa zituen, 11.954 laguni ematen zien enplegua eta 2.648 milioi euroko fakturazioa zuen.

Bizkaiko Teknologia Elkartegian 182 enpresa daude, 6.405 lagun enplegatzen dituzte eta 1.790 milioi euroko fakturazioa dute. 2006. urtean 29 enpresa gehiago kokatu dira elkartegi honetan. Arabako Teknologia Elkartegian 94 enpresa daude eta horiek 2.884 lagun enplegatzen dituzte, 2006. urtean 8 enpresa gehiago kokatu dira elkartegi honetan. Azkenik, 2006. urteko ekitaldia itxitakoan, Donostiako Teknologia Elkartegian 52 enpresa daude, 1.705 lagun enplegatzen dituzte eta 333 milioi euroko fakturazioa dute, 2006. urtean 6 enpresa gehiago kokatu dira elkartegi honetan.

Elkartegietako profesionalek burututako jardueren %36 informazioaren eta komunikazioen teknologiek loturik daude, %16 aeronautikarekin, teknologi zentroetako langileak beste %16 dira, eta datu adierazgarria da gero eta gehiago direla biozientzien arloan diharduten profesionalak, %6 gaur egun.

2006. urtearen amaieran Teknologia Elkartegien okupazio maila %71koa zen. Handiena Bizkaian, %99koa, eta Araban eta Gipuzkoan, berriz, %45 ingurukoa batean zein bestean.

Hona hemen 2006. urtean elkartegi bakoitzean burutu diren beste jarduera batzuk:

Bizkaiko Teknologia Elkartegia

- Inbertsiorik garrantzitsuenak enpresa anitzeko eraikin berri bat egiten jarraitzeko eta beste bi eraikin egiten hasteko erabili ziren, eraikin horietariko bat enpresei alokatzeko eta merkataritza gune baterako izango da, eta bestea **teknologia berrien interpretazio zentroa** izango da. Beste ekimenetariko bat lokal eta instalazio espezializatuak egokitzea izan da.
- Zerbitzu orokorren erabilera-maila handia izan da berriro ere, 1.200 bilera baino gehiago egin dira, eta Elkartegiko zein kanpoko enpresek bertan egin dituzte interes zientifiko tekniko handiko biltzarrak, jardunaldiak, mintegiak eta ikastaroak.
- Areagotu egin da enpresen arteko lankidetzari eta Euskal Herriko Unibertsitatearekiko elkarlanari emandako laguntza, eta hirugarren ikerketa talde bat erakarri dugu unibertsitatetik (EHU - Mikroelektronika Saila) ikerketa lanak elkartegian egin ditzan, halaber, oinarri teknologikoko enpresa berriak sortzeko laguntza eskaintzen da, IZARTEK ekimenaren jarraipen gisa, hartara, bioinkubagailu bat jarri da abian (BIOKABI), eta horrek bi enpresa proiektu izan ditu aurreinkubazio fasean eta beste lau inkubazio fasean, xede horretarako antolatutako laborategidun moduluetan.
- AISIATEK aisia eta kultur elkarte indartu da; elkarte horren helburua aisia eta lana integratzea da, plus bat sortuz Teknologia Elkartegiko langileentzat.
- Azkenik, nabarmendu behar dira Bizkaiko Teknologia Elkartegien XX. urteurrena ospatzeko urtean barrena egin diren ekitaldiak.



Arabako Teknologi Elkartegia

- Urte honetan ere berrikuntza sustatzeko ekimenak, eragile teknologikoen artean jakintza eta teknologia transferentzia bultzatzeko jarduerak, eta teknologiaren zabalkundeari eta transferentziari buruzko jardunaldiak burutzen jarraitu dute.
- “SEKPARK” proiektua garatu dute energi sektorea bultzatzeko, izan ere, lehendik ere sektore horrek garrantzi handia zuen elkartegi honetan, eta bultzada horri esker sinergia eta azpiegitura berriak sortzen lagundu nahi da. Proiektu horretan ekimen berritzaileak jarri dira abian, adibidez, “Energia Berriztagarrien Nazioarteko Topaketa 2006” arrakastatsua.
- “Zientzi eta Teknologi Elkartegien Eragin Sozioekonomikoari buruzko Azterlana” deritzan estatu mailako proiektuan parte hartu da.
- Teknologi Elkartegian egiteko geratzen ziren lanak amaitu dira. Plan Partzialaren bosgarren eta azken aldaketan zehaztutako jarraibideen arabera, 229.000 m²ko azalera urbanizatua geratu da saltzeko moduan.
- Arabako Teknologi Elkartegia zabaltzeko erabiliko diren lursailak erosteko proiektuaren lehen fasea. Jarduera hauekin hasiera ematen zaio Teknologi Elkartegia zabaltzeko prozesu luzeari, prozesu hau 5 urte barru amaituko da, urbanizazio lanak hasten direnean.

Donostiako Teknologi Elkartegia

- Donostiako Udalaren lur-zatiak formalki eskualdatzeko prozesuaren amaiera. Donostiako Udalak eta Teknologi Elkartegiak batera sustatutako Hitzarmenaren eta Hiria Antolatze Plan Orokorraren Aldaketaren bitartez, lur-zati horiek Teknologi Elkartegiarenak izatera igaroko dira, horrenbestez, eraikigarritasuna 52.000 m² handiagoa izango da.
- Ideia lehiaketa Arbidetako Dorreen inguruan A1 eta A2 lur-zatiak garatzeko, 5.500 m²ko lehen eraikuntza-gunea egiteko eta inguru hori urbanizatzeko lanak egiteko. A1 eta A2 lur-zatiak urbanizatzeko lanen hasiera, eta lehen eraikuntza-gunea egiteko lanen hasiera.
- Teknologi Elkartegiko erdiguneko eraikinaren instalazioetan biltzar, mintegi, aurkezpen eta hitzaldien artean 328 ekitaldi egin dira guztira eta horietara 23.287 lagun joan dira.
- Teknologi Elkartegia afiliatu egin da IRIS sarera (estatuko I+G+b planak bultzatutako eta Red. es-ek kudeatutako estatuko sare akademikoa eta ikerketakoa) eta I2BASK sarera (Euskal Autonomia Erkidegoko I+G+b komunitatea egituratzeko xedea duen sare akademiko honek telekomunikazio azpiegitura eta IKT zerbitzuak ematen dizkie Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sareko eragileei).
- Teknologiaren Transferentziarako Sarearen partaidea eta sustatzailea da. Teknologiaren Transferentziarako Sarea estatu osoko 800 enpresak baino gehiagok osatzen dute eta haren xedea Zientzi eta Teknologi Elkartegietan kokatutako ETEen eta traktio enpresen arteko lankidetzak proiektuak abiatzea eta garatzea da.



SPRI Taldearen Sozietateak

SPRILUR, S.A.

SPRILUR S.A sortu zen 1995ean, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru urbanizatua-
ren, industri pabilioien eta bulegoen eskaintza
publikoa zabaltzeko. SPRILUR-ek negozioak
zabaltzen eta enplegua sortzen laguntzen du
Euskadin.

**Bere jardueraren bidez aukera ematen du
edozein negozioren zabalkuntza sustatu eta
bultzatzeko eta Euskadin enplegua sortzeko.**

Sortu zenetik, SPRILUR, S.A.k **66 Industri
poligono** jarri ditu euskal enpresen esku hiru
lurralde historikoetan. Industri poligono horiek
honela bereizten ditugu bakoitzaren kudeaketa
formularen arabera: **Jabetzako 40 poligono**
zuzeneko kudeaketan eta **26 industrialde**
zeharkako kudeaketan (22 partaidetza maiorita-
riokoak eta 4 partaidetza minoritariokoak).

Hauxe izan da **SPRILUR, S.A.-ren akziodu-
nen zerrenda** 2006ko abenduan: SPRI, S.A.
%88,60 eta EAEko Administrazioa %11,40.

2006an SPRILUR, S.A.k lehendik dauden
poligonoak zabaltzeko eta industri eremu
berriak prestatzeko lanekin jarraitu du. Gainera,
erakunde publikoek aurreko ekitaldietan onartu
zituzten eta kaltetutako eremuak lehengoratzea
helburu duten industri azpiegituren proiektuak
gauzatu dira.



SPRILUR, S.A.

Horrenbestez, 2006. urtean, esan bezala, poligonoak egiten eta amaitzen jarraitu du, hori izan du ezaugarri nagusia, eta hainbat produktu eskaini ditu.

Hartara, horren erakusgarri ditugu: Arteako Bildosola Auzuneko industri poligonoa urbanizatzeko lanen amaiera (bertan 70.188 m² industri lur-zati pribatizagarri jarri dira guztira bezeroen esku) eta Mallabiko Goitondo Beheko Lau poligonoa urbanizatzeko lanen amaiera (bertan 30.728 m² industri lur-zati pribatizagarri kudeatu dira).

Gorago esan bezala, enpresei balio erantsi gehiago ematearen ildotik, 2006. urtean, SPRILUR sozietateak eraikuntza lanak burutu ditu 25.154 m² dituen Errenteriako Egiburuberriko poligonoko Z-2 lur-zatian; eraikuntza proiektu hori 18 enpresarentzat da, horien guztien beharrak proiektu bakarrean batuz eta koordinatuz.

Bestalde, 2006ko ekitaldian gestioak egin dira (batzuk dagoeneko amaituak eta beste batzuk tramitean oraindik ere) beste leku batzuetan kokatutako lursailak erosteko, eta lursail horien azalera gordina 1.439.936 m²koa da.

SPRILUR, S.A.

Jabetzako Poligonoak

SPRILUR-ek **31.982 mila euroko inbertsioa** egin du 2006an eta honela banatzen da:

	Mila euro
Finantza Inbertsioa	3.000
Jabetzako Poligonoetan Eginiko Inbertsioa	28.982
· Kaltetutako Eremuak (Nerbioi ibaiaren ertza eta Pasaiaiko Badia)	9.000
· Beste Batzuk	19.982



28.982 mila euroko inbertsioa egin da jabetzako poligonoetan, industri gunek handitzeko, batez ere alde behartsuetan eta industri interes estrategikokoetan.

Xede horretarako, kudeatutako lurzorua 1.070.688 m² urbanizatukoa da, horietarik 980.680 m² 568 enpresak darabiltzate eta enpresa horiek 8.468 langileri ematen diote enplegua.

Ondoren 2006ko abendaren 31ko **azalera eta okupazio datuak** eta SPRILUR sozietateak 2006an **lurralde historiko bakoitzean egin-dako inbertsioak** laburbilduko ditugu:

37

	Enpresa Kopurua	Enplegu Kopurua	m ² Gordinak	Lur-zatiak m ²	Pabilioiak m ²	Bulegoak m ²	Inbertsioak
Araba	27	356	231.386	142.694	8.832	-	1.928
Bizkaia	441	5.332	1.497.325	485.950	55.313	36.377	7.775
Gipuzkoa	100	2.780	1.342.659	442.044	9.249	854	19.279
GUZTIRA	568	8.468	3.071.370	1.070.688	73.394	37.231	28.982
Enpleguari Buruzko Datuak			Azalerari Buruzko Datuak				Mila euro

SPRILUR, S.A.

Industrialdeak Sozietateak

Ondoren, **Industrialdeak Sozietateek kudeatutako poligonoen azalera eta okupazio datuak** aurkeztuko ditugu, horietan SPRILUR sozietatea da partaide maioritaria.

	Enpresa Kopurua	Enplegu Kopurua	m ² Gordinak	Lur-zatiak m ²	Pabilioiak m ²	Bulegoak m ²	Inbertsioak 2006
Araba	182	1.025	234.336	32.037	94.575	5.833	5.798
Bizkaia	213	2.873	1.043.079	38.178	146.791	6.994	9.857
Gipuzkoa	996	13.241	2.774.549	694.044	473.217	83.246	8.849
GUZTIRA	1.391	17.139	4.051.964	764.259	714.583	96.073	24.504
Enpleguari Buruzko Datu Metatuak (2006/12/31)			Azalerari Buruzko Datu Metatuak (2006/12/31)				Mila euro

SPRILUR partaide nagusia duten sozietateek 2006an egindako **inbertsioak** 24.504 mila eurokoak izan dira; inbertsio horien zenbateko garrantzitsuenak ondorengo hauei dagozkie:

Zuatzu Enpresa Parkea

Donostian, Zuatzu Enpresa Parkean, bulegoak eta aparkalekuak egiteko lanak amaitu dira eta parke osoa urbanizatu da: hau da, 12.756 m²ko okupazioa eta 22.155 m²ko eraikigarritasuna.

Arratiako Industrialdea

Artean, Arratiako Industrialdea, S.A. sozietateak pabilioi modularren 3 eraikin egiteko lurrak erosi ditu eta okupazioa 13.031 m²koa izango da 17.855 m²ko azaleran.

Aiara Haraneko Industrialdea

Amurrioko Maskuribai Industrialdean, Aiara Haraneko Industrialdea, S.A. sozietateak 13.404 m²ko pabilioiak eraikitzeke lanak amaitu ditu.

Mallabiako Industrialdea

Mallabian, Mallabiko Industrialdea, S.A. sozietateak lur-zati urbanizatu bat erosi du Goitondo Beheko Lau poligonoan, 13.827 m²ko pabilioi modularrak eraikitzeke.

Oarsoaldeko Industrialdea

Pasaian, proiektu berritzaile bat jarri da abian Nabalalde poligonoan, bertan 25.000 m² inguruko azalera lortu da lagapen erregimenean Pasaia Portuko Agintaritzaren bidez, industri pabilioiak eta aparkalekuetarako eraikin bat egiteko.

Okamikako Industrialdea

Gizaburuagan, Okamika II Proiektuan egiteko geratzen ziren lan osagarriak amaitu dira, hau da, 4.574 m² gehitu zaizkio sendotze bidean dagoen proiektu honi, eta Okamika III-rekin jarraituko da 2.007an.

Aipatu ditugun proiektuek bildu dute urteko inbertsio portzentajerik handiena. Gainerako inbertsioa ondoko hauetan erabili da: Lautadako Industrialdean (bulegoak Jundizen), Busturialdeko Industrialdean (lur-zorua erostea Muxikan etorkizunean pabilioiak garatzeko), Urola Erdiko Industrialdean (aurreko kasuan bezala) eta Urduñako Industrialdean (lursailen egokitzapena ondoren urbanizatzeko).

Inbertsio horiek direla eta, 2005. urtearekin alderaturik 205 lanpostu eta 48 enpresa gehiago daude.

SPRILUR Taldeko beste sozietate batzuek ere proiektuak prestatu dituzte 2006. urtean, 2007an lanei ekiteko asmoz, adibidez, Zarauzko Industrialdeak Iritako poligonoan (pabilioiak eta bulegoak Zarautzen), TAILSAk Apattaerrekan (pabilioiak eta bulegoak Tolosan, urbanizatu-ta dauden eta bereak dituen lursailetan) eta Deba Beheko Industrialdeak Mijoan (pabilioiak Mutrikun).



Enpresa eta Berrikuntza Zentroak

SPRI Enpresa eta Berrikuntza Zentroez baliatzen da besteak beste enpresa sustapena bultzatzeko, batik bat oinarri teknologiko edota berritzailako enpresak sortzeko politika bat garatzeko asmoz, horretarako, sentsibilizazioa sustatzen du ekintzaile izan daitezkeen kolektiboen inguruan eta produktu edo jarduera berrien inguruan industri sarea dibertsifikatzeko.

Testuinguru horretan, Enpresa eta Berrikuntza Zentroek SPRIk ekintzaileentzat abian jarritako programa espezifikoak kudeatzen eta babesten dituzte, adibidez, Ekintzaile eta Barnekintzaile programetan tutoretza lana eginez, finantziazioa bilatuz, lokalak emanez, eta abar.

BIC Berrilan-en eta CEIA-ren eginkizuna, hurrenez hurren, Gipuzkoako eta Arabako Enpresa Digitala ekimenak bultzatzea eta sustatzea da.



Enpresa eta Berrikuntza Zentroak

Hona hemen Enpresa eta Berrikuntza Zentroek 2006. urtean burututako jarduerak:

Prestakuntza eta Motibazioa

CEIA

Euskal Herriko Unibertsitateko Arabako Campusarekiko lankidetzaren esparruan hedapen jarduerak burutu dira 6 fakultatetan.

Ekintzailetzari buruzko 26 foro espezifikotan parte hartu da. Antolatu dira halaber enpresak sortzeari buruzko ikastaroak, eta 150 ikaslek parte hartu dute horietan.

2006ko Enpresa Kudeaketa Aurreratuko Programa izeneko prestakuntza ikastaroaren xedea bideragarritasun planak eta enpresa planak garatzea da, eta bertan 17 lagunek parte hartu dute 13 enpresa-proiekturen izenean.

BIC Berrilan

15 sentsibilizazio jardunaldi antolatu dira ekintzaileentzat Gipuzkoako Unibertsitateko Campusean, eta beste 12 prestakuntza mintegi Euskal Herriko Unibertsitateko Campusean eta TECNUNen. Bestalde, "Teknologiatik Enpresa Mundura" ikastaroa eman da, eta bertan 38 lagunek parte hartu dute. Halaber, sariketa bi antolatu dira ekintzaileentzat: "Manuel Laborde Saria", 9 proiekturekin, eta "Toribio Echevarria Saria" 19 proiekturekin.

Saiolan

Bi ekintza mota bereizi behar ditugu, batetik, sentsibilizazio ekintzak, hauek 54 izan dira guztira eta bertan parte hartutakoak 1.315, eta bestetik, prestakuntza ekintzak, hauen artean 10 ikastaro antolatu dira ekintzaileentzat, eta parte-hartzaileak 243 izan dira.

CEDEMI

Opea-inem Programa: 2006. urtean Ezkeraldeko 450 langabe igaro dira CEDEMIren instalazioetatik, eta bertan banan-banan eman zaie arreta eta enplegurako zein autoenplegurako orientazioa jaso dute.

Lanerako Prestakuntza Ikastaroa: Martxoan, apirilean eta maiatzean "Administrazio Departamentuetarako Teknikari" ikastaroa eman da, ikastaro honek 150 ordu irauten du, CEDEMIren instalazioetan eman da, eta 12 langabe joan dira bertara.

Berrikuntzari Buruzko Jardunaldiak: "Berrikuntza, ekintzailetza eta enpresen lehiakortasun faktoreak handitzeko balioa" izenburuko jardunaldiak burutu dira, jardunaldi hauek eskualdeko enpresentzat antolatutako zeuden eta bertan 200 lagunek parte hartu dute.

KZ Gunea: CEDEMIren instalazioetan KZ-gune bat dago, eta Barakaldoko erabiltzaileek bertan jaso dezakete teknologi berriei buruzko prestakuntza. 2006. urtean 349 erabiltzaile berri erregistratu dira, beraz, dagoeneko 1.300 dira guztira. Azkenik, 93 ikastaro berri eman dira.

Aholkularitza Jaso Duten Proiektuak

CEIA

IKTen inguruko ideia edo proiektuei buruzko Araba Enpresa Digitala Sariketaren barruan 21 bideragarritasun plan egin dira.

Bestalde, 15 proiekturen garapena babestu dugu, horiek Ekintzaileen Aretan kokatuta daude, eta beste 9 bideragarritasun proiektu gehitu behar ditugu CEIA-n kokatu diren enpresa berrientzat.

Euskal Herriko Unibertsitatearekin burututako jardueri gagozkiela, 13 enpresa-idea berri zehazteko lan egin da, eta horien guztien bideragarritasun plana egiteko tutoretzan lagundu da.

BIC Berrilan

21 bideragarritasun azterlan egin dira jarduera berriak sortzeko eta beste 18 lehendik zeuden enpresak garatzeko.

Saiolan

26 bideragarritasun azterlan, 15 prospekzio azterlan eta produktua garatzeko 6 proiektu burutu dira.

CEDEMI

Enpresa berri izan daitezkeen 85 proiektu bultzatu dira, eta lehendik zeuden konpainiak garatzeko programak burutu dira.

Enpresa eta Berrikuntza Zentroetan Sortutako eta Kokatutako Enpresak

CEIA

2006. urtean, oinarri teknologikoko 9 enpresa berritzailek zuzeneko 43 enplegu sortu dituzte. Eta beste 15 proiektu daude inkubazioan, eratzeko aurreko fasean, 32 ekintzailez osatuak.

CEIAren instalazioetan kokatutako enpresak 30 dira eta zuzeneko enpleguak 139, hots, okupazio osoaren %96.

BIC Berrilan

2006an sortutako enpresak 15 izan dira, 3 urtera begira estimatutako enpleguak 137 dira, eta inbertsioa 7 milioi euro ingurukoa izan da.

Saiolan

12 enpresa berri sortu dira. SAIOLANen haztegia 5 enpresa daude eta okupazioa %70ekoa da.

CEDEMI

19 enpresa berri eratu dira, eta zentro honek haztegia 30 enpresa daude gaur egun, bestalde, okupazio ratioa %79koa da.

Beste Ekintza Batzuk

CEIA

Hainbat lankidetzaren proiektutan parte hartu da, bai tokiko mailan bai estatu mailan (proiektu horiek idatziz edota proiektu horiez galdetuz):

ANCES Lankidetzaren Plana

Bioances, EIBT's, ...

Campus Emprende AGUDEZIA

Euskal Herriko Unibertsitatea.

Alava Emprende
Aldundia, Udala, E. Jaurilaritza.

Spin Off - Jakintza Transferentzia
Tekn. Elkartegia, EHU, CEIA.

BIC Gipuzkoa Berrilan

Lan jardunaldiak egin dira 5 teknologi zentrotan (CIDETEC, VICOMTECH, CEIT, FATRONIK eta TEKNIKER) eta hainbat enpresa eta taldetan, horien artean hauek nabarmenduko ditugu: CAF, IKOR Sistema Elektronikoa, IKUSI, ULMA Taldea, MCC eta MAIER.

Bestalde, abian jarri da EHuko Ikerketaren Emaizak Transferitzeko Bulegoarekin (ITRB) batera lan egiteko plan bat, unibertsitatean lortutako emaitzak ustiatzeko prozesuan sakontzeko.

GIPUZKOA BERRITZEN proiektuaren 8. lerroan parte-hartzaile eta aitzindari izan gara.

Saiolan

Ondorengo proiektu bereziak **lur gabeen mugimenduarekin lankidetzan (MST-Brasil)**: Nekazaritza-turismoko sarea MST kokalekue-tan, Biodiesel (landatzea eta prozesatzea) eta Esnekiak.

CEDEMI

Bizkaiko Foru Aldundiak aukera berdintasuna errespetatzeari buruz antolatutako PAREKATUZ Programan parte hartu dugu, 4. Espazioan, horren helburua antolakundeetan genero berdintasuna sustatzea, aplikatzea eta garatzea delarik.

Bilbo Metropolitarrak Suspertzeko Elkartarekin (Bilbo Metropoli 30) kolaboratzen duen ZERO TALDEAn parte hartu dugu, izan ere, talde honek balio estrategikoak bilatzen ditu Bilbo Metropolitarrak Europako leku aurreratuen eta lehiakorren artean kokatzeko.

41





SPRI, Sozietatea

Atal honetan, jarduera operatibotzat jotzen ez diren sozietate osoaren gaineko datu batzuk jaso ditugu. Hortaz, **SPRIren kapital sozialari** buruzko 2006ko abenduko datuak, eta sozietatearen **administrazio kontseiluko** kideak agertzen dira, eta, azkenik, gainbegiratu bat egin diogu ISO 9001:2000 arauari jarraituz **Sozietatearen Kalitate Sistemaren** koordinazioan 2006an egindako lanari.

SPRI, Sozietate

SPRI, S.A.-ren Kapital Sozialaren Eraketa

Akzioduna	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
EAE-ko Ogasun Orokorra	193.404.900	97,90	208.012.500	98,05
Bilbao Bizkaia Kutxa	2.145.600	1,09	2.145.600	1,01
Gipuzkoa eta Donostiako Kutxa	1.454.600	0,74	1.454.600	0,69
Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxa	537.900	0,27	537.900	0,25
GUZTIRA	197.543.000	100	212.150.600	100
	2005		2006	



Administrazio Kontseilua

44

Presidenteak:

Ana Aguirre Zurutuza andrea

Presidenteordeak:

José Ignacio Zudaire Arana jauna

Mahaikideak:

Jesús Alberdi Areizaga jauna

Alberto Alberdi Larizgoitia jauna

Ricardo Barainka Barainka jauna

Bilbao Bizkaia Kutxa, Aurrezki Kutxa eta Bahitetxea ordeztuz

Fernando Irigoyen Zuazola jauna

Juan Miguel Bilbao Garai jauna

Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxa ordeztuz

M^a Teresa Crespo del Campo andrea

Gipuzkoa eta Donostiako Kutxa ordeztuz

Rosa M^a Leal Sarasti andrea

Ignacio M^a Echeberria Montebarria jauna*

Rodrigo García Azurmendi jauna

Koro Garmendia Galbete andrea

Alejandro López Carcamo jauna**

Jesús Antonio Monreal Cia jauna

Carlos Samaniego Pérez jauna

José Ignacio Tellechea Fernández jauna

Joaquín Villa Martínez jauna

José Guillermo Zubia Guinea jauna

Idazkari Ez Aholkularia:

Enrique Marco-Gardoqui Ibañez jauna

Zuzendari Nagusia:

Mauri Lazkano Brotóns jauna

Abokatu Aholkularia:

Gabriel de Mariscal Serrano jauna

* Josu de Lapatza Urbiola jauna (2006ko martxoaren 30 arte)

** Jesús María Goiri Basterra jauna (2006ko martxoaren 30 arte)



SPRI, Sozietate

Kalitate Sistema

Kalitate Batzordeak, kalitatearen organo erabakitzaile nagusiak, sei batzar egin ditu 2006an, alde batetik, sistemaren kontrol eta jarraipenari buruzko erabakiak hartzeko eta, bestetik, 13 prozeduren aldaketak onartzeko; aldaketa horiek, urte honetan egin diren ikuskapenen, eta barne tramiteak azkartu eta errazteko burutu den prozesuaren ondoriozkoak dira.

Sozietateko kideek hobekuntza prozesuan izan duten parte-hartzeari dagokionez, 2006an 40 iradokizun aurkeztu dira: %62 barne prozesuei buruzkoak, %16 Kanpo Komunikazioari buruzkoak, %5 Barne Komunikazioari buruzkoak, beste %11 pertsona eta lan harremanei buruzkoak, eta gainerako %5 beste gai batzuei buruzkoak.

Sistemaren barne ikuskapenen ondorioz, 34 ekintza zuzentzaile planteatu eta akatsak zuzendu dira.

Martxoaren erdi aldera AENOR-ek kanpo ikuskapena egin zuen, eta gaingitu egin genuen. Horrela beraz, hauek dira sozietateak ISO 9001:2000 arauari jarraiki lortutako lau egiaztagirak:

- Enpresa kudeaketako berrikuntza eta hobekuntza proiektuen Azterketa Zerbitzua diseinatu eta eskaintzea, laguntza publikoak emateko (HOBEGI DIGITALA Programa).
- Euskal enpresen ekintzei laguntza zerbitzuak eskaintzea, errazago sar daitezen nazioarteko merkatuetan (UNE-EN-ISO 9001:2000 Arauaren "Diseinua eta garapena" 7.3 kapitulua kendu da).
- Ikerketako eta teknologi garapeneko proiektuen Ebaluazio eta Jarraipen Zerbitzua ematea, laguntza publikoak emateko. EAEko Berrikuntzako Lotura Zentroaren Kudeaketa. (UNE-EN-ISO 9001:2000 Arauaren "Diseinua eta garapena" 7.3 kapitulua kendu da).
- Inbertsio proiektuen Azterketa Zerbitzua eskaintzea, laguntza publikoak emateko (GAUZATU eta EKINTZAILE Programak).

Beste alde batetik, SPRI, S.A.-k TECNALIARI eman dio urteko hornitzaile onenari eskainitako aitormena, eta FAGOR EDERLAN S.COOP-i bezero onenari emandakoa. Enpresa kolaboratzaileei emandako aintzatespen hori berrikuntza bat da enpresei zerbitzuak ematen dizkieten antolakunde publikoen kudeaketaren barruan: SPRIren zerbitzuak hobetzen gehien lagundu duten bezero eta hornitzaileei publikoki eskerak ematea.

SPRIko Zuzendari Nagusiaren Gutuna



Zalantzarik gabe, SPRIk 2006. urtean burutu dituen ekimenen multzo koordinatuak **etapa bat finkatu du Sozietate honen orientazio estrategiko berriaren ondorioz abiatutako eraldaketa orokorrean**, Sailak definitutako Enpresa Lehiakortasunerako eta Gizarte Berrikuntzarako Eredu berrian zehaztutako jarraibideen ildotik.

Finkatze hori erdiesteak ongi bideratutako ahalegin emankorra eskatu du -une honetan ahalegin hori zerbitzuak eskaintzera bideratuta dago zuzeneko laguntzak ematera baino gehiago- **gure enpresetan berrikuntza, ekintzailtza, hazkundera eta nazioarteratzea sustatzeko**, izan ere, kontzeptuok funtsezkoak dira lehiakortasunean arrakasta lortu eta atxikitzeko.

Hau esan ondoren, tarte honetan azterketa labur bat egin behar dut -eta atsegin handiz egingo dut- SPRIrentzat bi aldetatik garrantzitsua izan den iragan urte honi buruz.

Alde batetik, **25 urte bete ditugu euskal enpresaren zerbitzuan**, eta mugarri honek merezi duen bezalako isla izan du komunikabideetan, izan ere, halaxe ospatu dugu SPRI estatuko antzeko entitateentzat erreferentzia bihurtzen lagundu diguten langile, enpresa eta erakundeekin batera.

Beste alde batetik, efemeride garrantzitsu horrez gain, **Estatuko Garapen Agentzien Elkarteak** Donostian egin du **urteko batzarra**. Han 100 ordezkari baino gehiagok partekatu zituzten beren esperientziak eta bertatik bertara ezagutu ahal izan zuten SPRIk egindako lana, **gure enpresetan berrikuntza, ekintzailtza, nazioartekotzea eta hazkundera sustatzen dituen erakundera den aldetik**.

Une honetan ditugun lan ildo estrategikoen barruan, **BERRIKUNTZA** arloan, **ondorengo erreferentziak** aipatu nahi ditut berrikuntzaren bultzatzaile diren aldetik:

Teknologi Berrikuntza arloan, **Europako espalazio iturria** non kokatuko den erabakiko duten **Europako aditu ordezkariak Bilbon egindako batzarraren** antolatzailea izan da SPRI, eta hemengo agintari gorenak parte hartu zuten batzar horretan.

Testuinguru honetan, bestalde, **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarearekin** lotutako eragile eta enpresa guztiak elkartu ziren **VII. Programa Markoaren aurkezpenean**. Jardunaldi horretan, lehiakortasuna hobetzen lagun diezaieketen Europako proiektuak eta laguntzak eskuratzeko modua jakinarazi zitzaizen Sareari eta I+G bultzatzen konprometituri dauden enpresei.

Informazio Gizartearen eremuan, SPRIk antolatu duen “**e-business Global Conference**” jardunaldiaren V. edizioak sendotu egin du sareko negozio arrakastatsuen esperientziak partekatzeko elkargune hau. 500 enpresak baino gehiagok izan zuten aztergai “**Berrikuntza Errentagarria**”.

Halaber, ahalegin berezia egin da gure profesional eta enpresetara nazioarteko ospe handiko hainbat hizlari hurbiltzeko: **Tim O'Reilly, Chris Anderson, Pekka Himanen, eta Luigi Valdés, besteak beste.**

Bestalde, 2006an gure ekintzaileek **beste bi programa** izan dituzte gure ETEen **sustapena, EKINTZAIETZA eta HAZKUNDEA** bultzatzeko: **Inbertsioak egiteko Finantza Laguntzak** (AFI-IFL) eta **Ondorengotzak**. Biak hedatu dira hiru lurralde historikoetan ugazaben elkartean eta Merkataritza Ganberen laguntzari esker.

Sustapenaren testuinguruan ere, baina gure enpresa sarearen irudia kanpoan indartzeko, mundu osoan aitzindari diren **euskal enpresa batzuek egindako 100 produktu baino gehiago biltzen dituen argitalpen** bat prestatu eta plazaratu genuen.

INTERNAZIONALIZAZIO arloan, enpresei laguntzeko SPRIk eskaintzen dituen sostenguei buruzko sentsibilizazio eta hedapenaren esparruan, jardunaldi sektorial batzuk antolatu ditugu euskal enpresentzat interesekoak izan daitezkeen herrialdeei buruzko informazioa emateko.

Euskadi Intergune ekimenak SPRIren Kanpo sare osoa bildu zuen Bilbon bere lehenbiziko edizioan. Sare hau munduko 26 herrialdetan hedatuta dago, eta lehen eskuko informazioa jartzen du euskal enpresen eskura SPRIren ordezkariek dituzten kanpoko merkatu horiek eskaintzen dizkieten aukerei buruz.

Nazioarteko sustapen turistikoa ere SPRIren jardueretariko bat da, eta arlo honetan ere munduko hainbat tokitan izan gara eta Euskadiren eskaintza hurbildu diegu bisitari izan ditzakegunei.

Amaitzeko, beraz, SPRIren lan ildoei jarraiki, **SPRI Taldearen Sozietate Partaidetuek** ere –SPRILUR, Euskadiko Arrisku-Kapitalaren Kudeaketa, Enpresa eta Berrikuntza Zentroak eta Teknologi Elkartegiak- zerikusia izan dute 2006. urtean berrikuntza eta ekintzailtza arloetan egin dugun aparteko ahalegin horretan, izan ere, horietariko bakoitzak nabarmen hobetu ditu, zeinek bere arloan, gure enpresei eta ekintzaileei eskainitako sostengua eta azpiegiturak, bikaintasun lehiakorra eta bizi kalitate hobearen aldeko bidean.

Besterik gabe, neure esker ona adierazi nahi diet antolakunde honetako kideei egin duten lan onagatik, eta bide beretik jarraitzera animatu nahi nituzke, eta nik ere ahalegin, ardura eta gogorik handiena jartzeko konpromisoa hartzen dut, eginkizun garrantzitsu hau aurrera ateratzeko.




Mauri Lazkano
SPRI, S.A.-ko Zuzendari Nagusia

2006ko Irudiak · 2006 en Imágenes

48



2006ko Irudiak · 2006 en Imágenes



2006ko Irudiak · 2006 en Imágenes



2006ko Irudiak · 2006 en Imágenes

51



2006ko Irudiak · 2006 en Imágenes

52



2006ko Irudiak · 2006 en Imágenes

53

